



30 BAT IRUDI ARGAZKI LEHIAKETA

Oraindik ere baduzue aukera XII. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko, irailaren 30ean amaitzen da epea > 5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-09-15**

VIII. URTEA 2.074. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO


Tolosa-Getariako arraunlariak agur esan diote denboraldiari

TOLOSA Ez zuten lortu Kontxako Bandera; arraunlari bat aldatu behar izan zuten hasteko hamar minuturen faltan

DENBORALDIA Gipuzkoako Txapelketa eta Donostiako azken estropada izan ezik, bandera guztiak irabazi dituzte



Getarian harrera beroa jaso zuten arraunlariak. HITZA



Dagoeneko hasi dira Zerkausia prestatzen. A. IMAZ

27 garagardo aukeran bihar hasiko den XII. azokan

TOLOSA Lau egunetan zehar 19:00etatik 00:00etara egongo da zabalik Zerkausian z

Ostiraletik falta den gizon baten bila dabiltza senitartekoak

BERROBI Tolosako jatetxe batean ikusi zuten azkeneko; inork ikusi badu Ertzaintzarengana jotzeko eskatu dute 7

TARTALO DENDA IREKITA
Eskeintzak!!

Iraila / urria 2010

Osteguna	ostirala	larunbata
16	17	18
23	24	25
30	1	2
7	8	9

TARTALON

Plaza zaharra, 10. Tolosa

ZARAUTZ

SURFGARAGE

(Marina-Txiki taberna azpian)

Taulak, neoprenoak eta abar gordetzeko lekua urtean zehar

DUTXAK-TAKILAK-KABINAK

EURO 1 EGUNEKO...

info: surfgarag@gmail.com

tel.: 600 880 238



Tolosako XII. Garagardo Festa prestazen ari dira boluntarioak Zerkausian; bihar zabalduko dituzte ateak. A. IMAZ

Tolosako XII. Garagardo Festari azken ukituak ematen hasi dira

Jaia » Lau egunetan zehar, Zerkausian, afaltzeko eta eztarria bustitzeko aukera egongo da, 19:00etatik 00:00etara.

ASIER IMAZ

Tolosako XII. Garagardo Festa bihar hasi eta igandean amaituko da. Egun hauetan, azken prestakuntza lanetan aurkitzen dira. Ohi bezala, kirol talde desberdinek antolatuta dute garagardoaren azoka: Tolosaldea Igeriketak, Igarondo Urpekoak, Judo Club Tolosa eta Tolosa CF-ek.

Egun guztietan, Zerkausian, 19:00etan hasiko dira zerbitzuetan, 00:00etan amaitzeko; «hala eta guztiz ere, ondoren jendeak bertan egoteko aukera edukiko du».

Finantziarioa helburu

Karmeleta eta Paulino Alonso tolosarrak gogor dabilta antolatzailer lanetan. Hauen esanetan, modu berean «210 lagun inguru» ibiliko dira lau egun hauetan zehar. Izan ere, horrelako jai batek «lan handia» eskatzen du.

Alonsoren esanetan, helburuari dagokionez, «kirol taldeek urtean zehar egiten dituzten ekintzak finantziatzeko dirua biltzea da. Gurasoek dirua bestela ere jartzen dute, baina horrela, laguntzatxo bat izaten dugu».

Arrakastaren bidean

Aurreko urteetan «jende ugari» gerturatu izan da Tolosako Garagardo Festara. Lortutako irarripena emateko asmoz, aldaketa gutxi burutuko dituzte aurtengoan: «Garagardo normalak eta bereziak egongo dira, guztira 27 mota;

menua ohikoa izango da, hori bai, postre berri bat egongo da; 1.200 lagunentzat egongo da afaltzeko lekua eta hiru egunetan haurrentzat eta ez hain haurrentzat ekitaldi desberdinak egongo dira» azaldu du Elolak.

Berrikuntzen artean, helburuari dagokionez, «kirol taldeek urtean zehar egiten dituzten ekintzak finantziatzeko dirua biltzea da. Gurasoek dirua bestela ere jartzen dute, baina horrela, laguntzatxo bat izaten dugu».

ren emanaldi ibiltaria. Azkenik, Zerkausian prestakuntza lanetan jarraitu aurretik, Paulino Alonsok eta Karmeleta Elolak eskualdeko herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte Tolosara: «Benetan giro sanoa egoten da azokan; familiarak, gazteak eta helduak etortzen dira eta denen artean jai polita sortzen da. Horregatik, eskualdeko herritar guztiak gonbidatzen ditugu XII. edizio honetara».

» DATUAK

Garagardoa

■ **Normalak (2,5 euro).** Damm Bier; Damm Lemon; Estrella Damm; Radeberger Pilsen; Budweiser eta Mahou 5 Estrellas.

■ **Bereziak (3,5 euro).** Leffe; Hoegaarden; Franziskaner; Budejovicky; Warsteiner; Veltins; Maisels Dampfbier; Paulaner Weissbier; Paulaner Original Munchner; Carlsberg Beer; Voll Damm; Leffe (Gorria); 1906 Reserva Especial; Maisels Weisse Original; Paulaner Salvator; Affligen; Grimbergen Double; Bock Damm; Leffe (Bel-tza); Guinness eta Mahou.

■ **Ura eta freskagarriak.** Euro bat.

■ **Pitxarra.** Euro bat.

Menua

■ **Bratwurt eta Frankfurt saltxitxa.** 2,5 euro.

■ **Burruntzia.** 2,5 euro.

■ **Ukondoa.** 10 euro.

■ **Patata frijituak.** Euro bat.

■ **Saltxitxa ogitartekoa.** 2,5 euro.

■ **Gazta eta irasagarra.** 2,5 euro.

■ **Euskal pastela.** 2,5 euro.

■ **Idiazabalgo gaztazko kanutiloa.** 2,5 euro.

Lekua

■ **1.200 lagunentzat.** Zerkausian egongo da barra eta sukaldia. Tinketak erosteko txosna Trianguloa plazan jarriko dute. Plaza Zaharrean karpa bat egongo da mahaiakin. Eguraldi ona egiten baldin bada, Solana kalean mahaiak jarriko dituzte.

Ekitaldiak

■ **Bihar, hilak 16.** Irekiera 19:00etan. 20:30ean Tolosako musika banda kaleetan zehar.

■ **Larunbata, hilak 18.** Belca txirrindulari taldearen eskutik ginkana eta tailer konponketa haurrentzat, Trianguloan 18:00etan.

■ **Igandea, hilak 19.** Trianguloan Xake erraldoia, 18:00etn.

Laburrak

Udaberri Dantza Taldearen ikastaroa ostiralean

TOLOSA • Udaberri Dantza Taldeak jakinarazi dutenez, Haur ikastaro-etako talde eta ordutegiak www.udaberri.com helbidean zintzilikatu dituzte. Hala eta guztiz ere, Dantza Taldeak azaldu dutenez ikastaroak irailaren 17an, ostiralean, hasiko dira.

Miren Gonzalez Goikoetxearen erakusketa

TOLOSA • K-2 tabernan Miren Gonzalez Goikoetxearen lanak egongo dira ikusgai hilaren 17tik azaroaren 30era bitarte. Pintura erakusketa olozko 10 margo-lanek osatzen dute. Abendutik urtarilerara bitarte berriz, Bartzelonako galeria batean jarriko du erakusketa.

Kultur Tailerrak eta Jabekuntza Eskola

TOLOSA • 2010/11 ikasturteko Kultur Tailerretako eta Jabekuntza Eskolako ikastaroen eskaintzak osatu dituzte. Informazio guztia ondorengo helbide elektronikoan zintzilikaturik aurkitzen dela ere azaldu dute Udaletik: <http://www.tolosakoudala.net/edu/html/7/1867.shtml>. Matrikula epea datorren astelehenean irekiko dute, eta irailaren 24ra bitartean egin ahal izango da Tolosako Kultur Etxean. Ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa lortzeko, ondorengo aukerak zabaldu dituzte:

- Kultur Tailerrak: 943670383.
- Jabekuntza Eskola: 943670383 eta 617736014 (Josebe Iturrioz, Bertintasun Teknikaria).

Asteburuan mendira joateko aukera bikaina

TOLOSA • Oargi Mendi Elkarteak irailaren 17, 18 eta 19an mendiri irteera antolatuta du Añelarre, Anie eta Lakartxela mendietara. Ostiralean, hilaren 17an, Tolosatik atera eta Isabako aterpetxera joango dira, bertan lo egiteko asmoz. Larunbatean, hilaren 18an, lehenik Añelarre (2358 metro) mendia igotzea aurreikusten dute. Ondoren, egunko bigarrenari ekingo diote, hau da, Anieri (2504 metro). Mendi itzulia egin ostean, aterpetxera itzuliko dira lo egitera. Azken egunetan, igandean, Lakartxela (1982 metro) igotzen saiatuko dira. Ondoren Tolosara etorriko dira. Izena eman nahi dutenek info@oargi.org edo 688 69 86 42 mugikorrean edukiko dute aukera.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gaurtik aurrera eman daiteke izena ikastaroetan

Tolosa » Bi aukera berri daude: esgrima eta multigym; azken honetan pilates, gap eta estiramenduak egiten dira.

ERREDAKZIOA

Gaurtik aurrera eman daiteke izena Alegiako Inaxio Begiristain kirol eta kultur etxeak ikasturte honetarako antolatutako ikastaroetan. Oraingoan bi ikastaro berri eskainiko dituzte, esgrima eta multigym, hain zuzen.

Irakaslea Aimar Martinez izango da eta azaldu duenez esgrimari «koordinazioa lantzen da, batez ere». Era berean, «borroka soila ematen badu ere», kirol hau egitekoan asko pentsatu behar dela

dio Martinezek. «Ezin da pentsatu gabe egin, denbora guztian aurkariak egiten duenaren zain zaude, tentsioan, etengabe pentsatzen zaude», gaineratu du.

Berak ere Donostian jasotzen ditu eskolak eta kirol «berezia» dela dio. «Kontzentrazioa lantzen da batez ere, asko lasaitzen du. Nik ordu eta erdian erabat deskonektatzen dut, dena ahazten zait eta izerditan blai bukatzen dut», argitu du. Estresa kentzeko ere oso erabilgarria izan daitekeela dio.

Arriskutsua badirudi ere, «baber egokiarekin» ez dauka zertan arazorik egon behar, hori bai, «karetara eta jertse lodia» eraman behar dira beti. Alegian sablea erabiliko dutela ere aurreratu du Martinezek.

Ikastaro honen aurrekaria udan



Orain urte batzuk ere, udan, haurrek izan zuten esgrima ikasteko aukera. HITZA

» IKASTAROAK

Aerobic

- **Egunak.** Astelehena, asteazkena eta osteguna.
- **Ordutegia.** 19:00-20:00.

3. adinekoen gimnasia

- **Egunak.** Astelehena, asteazkena eta ostirala.
- **Ordutegia.** 11:00-12:00.

Esgrima

(Urria, azaroa eta abendua)

- **Egunak.** Ostirala.
- **Ordutegia.** 17:30-19:00.

Multigym

- **Egunak.** Astelehena, asteazkena eta ostirala.
- **Ordutegia.** 15:00-16:00.

Gimnasia erritmikoa

- **Egunak.** Ostirala.
- **Ordutegia.** 18:00-19:00.

izan da, izan ere haurren artean tailerra egin dute eta gustura ibili direnez urteko lehen hiruhilekoan eskainiko dute.

Datorren hiruhilekoan, oraindik zehaztu ezin dezaketen arren, seguruenen kengo eskainiko dute eta ikasturteko azken hiruhilekoan helduentzako patinaia eskainiko dute.

Izena gaurtik urriaren 4a bitarte eman daiteke Kirol eta Kultur Etxean bertan, edota 943-65 46 98 telefono zenbakira deituta.

Osoko bilkura gaur, 20:00etatik aurrera

Villabona » 'Bai Udabiltzari, bai Euskal Herriari' mozioa eztabaidatuko dute, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak jakinarazi duenez, gaur 20:00etatik aurrera osoko bilkura burutuko dute. Bertan gai hauek izango dituzte hizpide, besteren artean: Josune Arretxe Zugarramurdi zinegotziaren heriotza dela eta hutsik dagoen postua beteko duen pertsonaren

jakinarazpena; eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioaren estatutuaren aldaketa. Behin betiko onspena akordioaren aurka eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazio Hiri Hondakinen Transferentzia eta Tratamendurako Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Erregulamendua proiektuaren behin betiko onarpen-erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko, nahiz abokatua eta prokuradorea izendatzeko proposamena.

Era berean, Bai Udabiltzari, bai Euskal Herriari mozioa ere aurkeztuko dute.

Atletismo Eskolan izena emateko deia

Tolosa » Adin desberdinen arabera entrenamendu egunak eta orduak finkatu dituzte jada.

ERREDAKZIOA

Tolosako Atletismo Eskolak hasi du ikasturte berria eta herriar guztiak gonbidatzen dituzte bertan parte hartzera.

Infantil mailako haurrak (1997 eta 1998 urtekoak) astelehena, asteazkena eta ostiralean entrenatuko dute 17:30etik 19:00etara bitarte. Alebin mailakoak (1999-2000 urteak), aldiz, astelehena eta asteazkenetan ariko dira 17:30etik 18:30era. Bukatzeko, benjaminak (2001-2002 urteak) ostiralero entrenatuko dira 17:30etik 18:30era. Informazio gehiago nahi duenak 943-67 17 49 telefono zenbakira deituta eskuratu ahal izango du.

AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

Kalitatezkoa

EDARIAK

ELIKAGAIK

JANTZIAK

DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...

ESKULAN GINTZA

400

PROIEKTUAK

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko **plaza.com**

Pilates eta dantza ikastaroan izena emateko epea zabalik

Hernialde » Hilaren 24a eta 27a dira izena emateko azken egunak. Ikastaroak adin guztietako herritarrei zuzenduak daude.

ERREDAKZIOA

Hernialdeko Udalak, ikasturte honetarako pilates eta dantza ikastaroak antolatu ditu. Pilates, astearte eta ostegunetan izango da etabi ordutegi izango dira aukeran. 18:00etatik 19:00etara edota 19:00etatik 20:00etara. Ikastaroaren hasiera eguna hilaren 28a izan-

go da. Izena emateko udaletxera jo beharko da eta horretarako azken eguna, hilaren 24a izango da. Hiruhileko kuota: 75 euro izango da. Ikastaro hau adin guztietako herritarrei zuzendua dago.

Ikasturte hasiera urrian izango da. Umeak, asteartetan izango dute 19:00etan eta helduak, larunbatean 10:00etan. Honakoan ere izena emateko eman behar da hilaren 27a baino lehen. Urteko kuota, 14 urte bitartekoena, 15 euro izango da eta 14 urtetik gorakoena berriz, 30 euro. Ikastaro hau ere, adin guztietako jendeari zuzendua dago.

Helduen ikastaroak Adunan

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak, herritar helduekin bilera bat egin zuen ikastaroen inguruko informazioa jasotzeko. Bileran jasotako proposamenen artean: gozogintza, izozkiak eta ogia egiten ikasteko ikastaroa, eskulanak, makrobiotika, makillajea, oinarritzko sukaldaritza, aretoko dantzak, gimnasia, aerobik, pilates, euskal dantzak eta argazkiekin bideo-muntaiak egi-

teko ikastaroa (Adobe Premier) izan ziren.

Ikastaroetan izena emateko, 943 69 39 30 telefonora (Itsaso) deituz edo liburutegira, asteartetan 09:00etatik 13:00etara edo 17:30etik 19:30era eta ostiraletan 17:30etik 19:30era joanda eman daiteke. Izena emateko azken eguna, hilaren 24a izango da. Taldea osatzeko gutxieneko kopurua, 8 eta 10 lagun artekoa izango da.

Asvinenean udako azken bi ikastaroak

ERREDAKZIOA

Uda bukatzeaz den honetan, Adunako Asvinenea Eskolak, bi ikastaro prestatu ditu larunbaterako. Larunbatean, break dance ikastaroa egingo dute eta hilaren 25ean, didjeridoo ikastaroa.

Larunbat honetako break dance ikastaroa, 10:00etatik 13:00etara

izango da. 30 euroko kostua izango du eta hasiberrirentzako modukoa da. Irakaslea, Diego Picamills Larrea, *Stamer* izango da.

Ez da indar askorik behar eta egin daitezkeen truku ezberdinak erakutsiko dituzte. Informazio gehiago www.asvinenea.com helbidean.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Haurrak zaintzeko.** Neska bat, ikasturtean zehar haurrak zaintzeko eskaintzen da. Esperientziaduna da. Interesatuta egonez gero, deitu 685 70 6103 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Betelun pisua salzen da. Berria da: hiru logela, su-

kaldea, egongela, bi bainugela eta igogailuarekin. Prezio onean. Interesatuek deitu: 629 40 32 20 telefonora.

■ **Etxebizitza.** Orioko hondartzan pisu berria salgai. Bi logela, sukaldaria, egongela, bi bainugela, terraza eta lur sailarekin. Eta bi autoren-tzako garajea du. Prezio onean. Interesatuek 686 14 29 16 telefonora deitu beharko dute.



lazio talde txapelketa Transportes Lakunza izan zen. HITZA

Larunbatean 'Billabonara!' futbito txapelketa izango da

ERREDAKZIOA

Larunbatean, hilaren 18an, *Billabonara!* futbito txapelketa jokatu da. Aurten 24 ordukoa izan beharrean, zortzi ordukoa izango da. Eguerdik 12:00etan hasi eta 21:00ak bitarte Errebote plazan (euria egingo balu, Olaederra kiroldegian izango litzateke) izango

da. Izena emateko hiru modu daude: 11:00etan Errebote plazan bertan, 943 693 433 telefonora deituta edota billabonara@gmail.com helbidera idatziz. Txapelketa bukatu ostean, Irrintzi elkartearen afaria egingo dute. Txartelak Iratzar talde berran salgai daude.

Helduen ikastaroetan izena emateko aukera zabala prestatu dute

Asteasu » Urriko lehen astean hasiko dira; hilak 23 baino lehen eman behar da izena ikastaro desberdinetan.

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udalak ere, ikastaroen aukera zabala prestatu du. Ikastaroak, urriko lehen astean hasiko dira eta izena ematea hilaren 23a baino lehen egin beharko da udal-letxean edota 661 082 656 (Ainhoa) telefonora deituz. Informazio gehiago eskuratzeko ere bertara jo daiteke.

Laboreak (bainika, bordatua, gurutze puntura,...) asteartetan izango da eta 100 euro ordaindu

beharko da. Egur taila, ostiraletan izango da eta 110 euroko kostua izango du. Euskal dantzetan, oinarritzko betiko gure dantzak ikasteko aukera izango da ostiraletan. 100 euro ordaindu beharko da. Alboka eta txalaparta, astelehenetan izango dira eta bakoitza 100 euro ordaindu beharko da. Dantza modernoa, 12-18 urte artekoentzat, ostiraletan izango da 18:00-19:30era, 65 euro ordainduz.

Ehungintza-fieltreko ikastaroa egiteko aukera ere badago. Bakoitzak, 125 euro ordaindu beharko ditu. Eta sukaldaritza ere egiteko aukera izango da, Javi Penas irakaslearekin.

Kantu saioak doan dira; kantu zaharrak berreskuratu, kantatu, trebatu eta lagunartean aritzeko.

'Baserritik etxera, salmenta zuzena' taldea osatzeko bilera gaur, 19:00etan

Zizurkil » Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Villabonako herritarrei zuzendutako deialdia da.

ERREDAKZIOA

Baserritarrak ekoiztutako produktuak bitartekaririk gabe etxeratze modua ematen dute kontsumo taldeek. Pasa den maiatzean, kontsumo taldeen funtzionamendua azaltzeko bilera bat egin ostean, eta herritarren interesa ikusiz, dagoeneko Ernioaldeko kontsumo taldea osatzekotan daude. Helburua, taldea martxan jarzea izango da.

Kontsumo talde horretan parte hartu nahi duten kontsumitzaileei, gaur Atxulondo kultur etxean, 19:00etan egingo duten bilerara azaltzeko gonbidapena luzatzen diete.

Aduna, Asteasu, Villabona eta Zizurkilgo Udalek antolatu dute eta bertako herritarrei zuzendua izango da bilera hau.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

lbarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztongo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

■ **Autoa.** Volkswagen Tovarreg V6. Hiru urte bakarrik ditu. 100.000 kilometro ditu eta oso egoera onean aurkitzen da. Interesatuek 629 40 32 20 telefono zenbakira deitu beharko dute.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Artzai txakur itxurako txakurra galdu zen larunbat eguerdian Tolosako Bonberenea ingu-


ruan. Aurkitu duenak detaileren bat jasoko du. Aurkitu edo ikusi duenak, deitu 661 67 87 89 eta 627 36 07 52 telefonora.

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baseria edo bordaren bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.




Egoitz uda honetan «kurrunko parajeetan» ibili bada ere, «etxeko» argazki bat aukeratu du, «Txindokin ateratako hau, hain zuzen». EGOITZ BENGOTXEA



Olatzek Bartzelonan ateratako argazkia bidali du: «Bartzelonan, Gaudiren eraikin eder hauek ikusi genituen, non naturaren forma bihurri eta koloretsuak islatzen diren». OLATZ DORRONSORO



Mila Londresen izan da uda honetan: «Londresen hain dotoreak diren taxia eta telefono kabinak». MILA OTAMENDI



«Aurten Lisboa inguruak ezagutzen ibili gara, oso hiri ikusgarria bere karrketan galtzeko. Bidalitako argazkian bertako irudi tipiko bat ikusi daiteke, kale maldatsuak 'Barrio Alto'ra igotzeko tranbia eder batekin». ANDONI LEUNDA

Txindokitik Lisboara

XII. HITZA Argazki Lehiaketa » Hogeita hamar argazki inguru jaso ditugu jada lehiaketan parte hartzeko; hilak 30 bukatuko da epea.

ERREDAKZIOA

Munduko txoko askotan ateratako argazkiak iritsi zaizkigu XII. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko; Grezia, Norvegia, Errumania...

Etxetik gertu ateratako irudiak ere bidali dizkiguzue, noski, Aralarren, Urederren edota Tolosan bertan ateratakoak, esaterako. Argazki guztiak dute aukera hiru sari

eder eskuratzeko; Eako (Bizkaia) Andutza landetxean bi pertsonentzako bigau, Getariako (Gipuzkoa) Gure Ametsa landetxean bi pertsonentzako gau bakarra edo Tolosako Gorrotxategi Gozotegiak eskainitako saski berezia.

Gaurkoan Bartzelonan, Txindokin bertan, Londresen eta Lisboan ateratako argazkiak argitaratu ditugu.

Irabazleak urriaren 10ean

Gogoratu irailaren 30 dela argazkiak bidaltzeko azken eguna eta honako helbidera bidali ahal dituzuela: argazkiak@tolosaldeko-hitza.info. Paperezkoak badira, Tolosako Araba etorbidea, 5, atzea helbidera ere bidali ahal dituzue.

Epaimahaia jasotako argazkien artean 8 aukeratuko ditugun ondoen, eta urriaren 3ko alean jakinago duzue zeintzuk diren. Harpidunek urriaren 4tik 8ra bozkatu ahal izango dute zortzi horietatik zein den gehien gustatzen zaiena, eta urriaren 10eko alean izango duzue hiru irabazleen berri.

argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa
Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

Eako landetxean bi pertsonentzako gau bakarra

2. Saria

Getariako landetxean bi pertsonentzako gau bat

3. Saria

Gorrotxategi Gozotegiaren eskaintako saski berezia

Parte-hartzaile guztiak HITZAko materiala jasoko dute.

Tolosa-Getariak ezin izan du sasoi borobildu Kontxako Banderarekin

Arrauna » Galiziatik 17 segundora bigarren egin zuten; arraunlari bat aldatu behar izan zuten hasteko hamar minutu falta zirela.

IMANOL GARCIA

Ez zen posible izan. Tolosa-Getaria Kontxako Bandera preziatu gabe gelditu zen igandean. Galiziak irabazi zuen beste behin, eta beraz, jokatu diren hiru banderak eraman dituzte. Tolosa-Getaria bigarrena izan zen 17 segundora eta Zumaia hirugarren 20 segundora.

Maitane Garmendia Tolosa-Getariako arraunlari ibartarrak, balantzea egiterakoan, igandeko zein larunbateko estropadari begiratu behar zaiola azaltzen du: «Larunbatean, erlojupekoan, sentsazio onekin gelditu ginen. Hor garbi ikusi zen igandeko estropadan borroka handia izango zela. Bi segundoren baitan sartu ginen Galizia, Zumaia eta gu. Nahiz eta guk egin denborarik onena, oso alde txikia izan zen».

Igandekoan, Bandera jokatzeko egunean, ez ziren gauzak ondo hasi: «Berotzera atera ginen eta atera eta laster, lehenagotik ere erdi lesionatuta zegoen arraunlari batez zen ondosenitzen eta estropada baino hamar minutu lehenago aldaketa egin behar izan genuen», azaltzen du Garmendiak. «Aldaketa egiteak ere suposatzen zuen beste hiru arraunlari lekuz aldatzea. Eskatera egin genuen ean posible izango zen beroketarako denbora gehiago izatea. Ezezkoa erantzun ziguten. Estropadak hamaitan hasi behar zuela eta ezin zela aldaketarik egon. Eta horrelaxe ateraginen».

Lehenengo luzea gustura egin zuten, baina arazoak ziabogan hasi ziren. «Joaterakoan nahiko ondo



Izaskunen denboraldia ospatzeko bazkaria egin zuten Tolosa-Getariakoek. HITZA



Tolosa-Getariakoak Zumaiarekin lehian, bigarren postua eskuratzeko. HITZA

aritu ginen. Bi edo hiru segundoko tartearrekin iritsi ginen ziabogara Galiziako trainerutik, baina gero itzulerakoan ez genuen asmatu, olatuekin okertu egin zitzaigun ontzia, eta gero berriro ere zuzentzen saiatu ginen. Hor denbora joan zitzaigun. Gero ere patroia

memento batean ondoezik sentitu zen. Dena elkartu zitzaigun... Galiziarrek olatu guztiak harrapatzen zituzten eta beraiek eraman zuten Bandera».

Ziabogatik ateratzerakoan galiziarrek abantaila hartu zuten segituan eta estropada hautsi zuten.

«Beraiek buelta eman bezain pronto olatua hartu zuten eta harekin atera ziren», gogoratzen du arraunlariak. «Gu pixka bat noraez gain gelditu ginen, ondo lerokatu gabe. Ikusita genuen entrenamenduetan olatuak hartzerakoan ontzia nola joaten zen eta igandean ez genuen asmatu horrekin».

Bigarren postuari eutsi zieten Zumaiakoekin borroka estu baten ondoren. «Beraiekin oso alde gutxi genuen itzulerako luzean. Orain falta zaiguna da lehenengo postua galdu eta bigarren goa ere bai galdu. Azkenean bazkaritik Getariara joan ziren. Bertan egin zieten harrera udaletxean eta kalejiran ere aritu ziren denboraldian lortutako banderarekin. Datoren denboraldia prestatzeko asmoz aurki bilera egingo dute. Urriaren bukaeran edo azaroaren hasieran hasiko dituzte entrenamenduak. Batelaren denboraldia urtarriaren bukaeran hasiko dute. Halere, hurrengo denboraldian helburu bat oso garbia izango dute: Kontxako Bandera eskuratzeko».

«Sekulako denboraldia»

Faboritoak ziren Tolosa-Getariakoak eta beraiek ere ikusten zuten Bandera irabazteko aukerak zeudela aurten. «Sekulako denboraldia egin dugu. Parte hartu dugun

estropada guztiak irabazita ginetuen, Gipuzkoako Txapelketa izan ezik. Euskotren Ligan Galiziarekin jokatu eta hiru estropadak irabazita eta alde pixka bat ateratzen genieni. Gipuzkoako Ligan jokatu eta guztiak irabazita ere. Ikusten genuen udako denboraldia oso ona izan zela. Esperantzak bai, bagenekien borrokatua izango zela, baina...».

Presioak gehiegi estutu zien galdetu, Garmendiak dioenez ez zeuden «aztoratuta». «Estropada ga-

Maitane Garmendia: «Beti esaten da estropadak lehorrean irabazten direla»

rrantzitsuena da eta urduritasuna beti egoten da. Hamar minutu lehenago aldaketa egin beharra... Saiatzen zara zure burua lasaitzen. Horrela entrenatuta geunden, aldaketa horiek eginda, eta ontzia ondo zihoan. Gure artean ere komentatu genuen, ontzia entrenamenduetan ondo joan zela eta ondo joateazuela». Horrelakoetan buruak ere asko egiten duela dio arraunlariak: «Beti esaten da estropadak lehorrean irabazten direla. Ez dute arrazoi faltarik. Ez da indarra bakarrik, buruak ere asko egiten du. Psikologikoki ere ondo prestatuta egon behar duzu».

Igandean denboraldiari amaiera eman zioten Tolosa-Getariakoek. Taldeko guztiak bazkaria egin zuten Izaskunen denboraldia ospatzeko. Tolosan eta Getarian zeuden aurreikusita harrera egingo ziotela. Azkenean bazkaritik Getariara joan ziren. Bertan egin zieten harrera udaletxean eta kalejiran ere aritu ziren denboraldian lortutako banderarekin. Datoren denboraldia prestatzeko asmoz aurki bilera egingo dute. Urriaren bukaeran edo azaroaren hasieran hasiko dituzte entrenamenduak. Batelaren denboraldia urtarriaren bukaeran hasiko dute. Halere, hurrengo denboraldian helburu bat oso garbia izango dute: Kontxako Bandera eskuratzeko».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Izaskun izena duten hainbat eskualdeko emakume biltzen dira bertan. HITZA

Izaskun guztien eguna ospatuko dute igande honetan

Ibarra » Birjinaren izen bera duen eskualdeko emakumeentzat festa antolatuko dute Ibarako auzoan.

ERREDAKZIOA

Urtero legez festa handi batekin ospatuko dute igandean Izaskun Birjinaren eguna izen hori bera duten eskualdeko emakumeek. Jaia Ibarako Izaskun auzoan izango da egun guztian zehar. Hasteko 12:00etan Seigarren

Toka Txapelketa jokatu dute. Ondoren, Meza ospatuko dute Izaskungo ermitan.

Ohiko egitaraua izango da aurrten ere. Eguerdian Izaskun guztiak mahaiaren bueltan bilduko dira. Bazkaria Izaskun jatetxean izango da eta bertan, Iñaki Perurena ere izango da bere orkestrarekin bazkalondoa alaitzeko.

Bazkaltzera joan ahal izateko alderdiaren eguna izen hori bera duten eskualdeko emakumeek. Jaia Ibarako Izaskun auzoan izango da egun guztian zehar. Hasteko 12:00etan Seigarren

Pirinioetara irteera asteburu honetan

Leitza » Petretxema eta Hiru Erregeen Mahaia mendiak igoko dituzte; izena emateko epea gaur amaitzen da.

ERREDAKZIOA

Mendibil mendi taldeak eta Aurrerakiro elkarteak irteera antolatu dute asteburu honetarako. Pirinio aldera joango dira, Euskal Herriko tontorrik altuenak igotzeko. Larunbatean goizean goiz aterako dira Leitziatik eta igande iluntzean bueltatu.

Izena emateko epea gaur amaituko da. Hau Astiz eta Maimur liburur dendetan, edo mendibilaurrera@hotmail.com helbide elektronikora idatzita egin daiteke. Aurrerako bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta gaintzakoek 4. Prezioan barne sartzen dira larunbateko afaria, gaua eta igandeko gosaria, Linzako aterpean.

Larunbatean, autoz, 06:15ean abiatuko dira Leitza plazaetik. Handik 960 metroara dagoen Pont Masousa (Lescun) joango dira. Gero, Cab. d'Ansabère (1.620 metro) Col de Patregeme (2.082 metro) eta Petretxema (2.360 metro) igoko dituzte. Azkenik, Linzako aterpera jaitsiko dira, 6-7 ordu inguruko ibilaldia egin ostean.

Igandean, aterpetik abiatu eta Euskal Herriko gailurrik altuena igoko dute, Hiru Erregeen Mahaia (2.428 metro). Hortik Col d'Escoueste (2.114 metro) eta Pont de Masousara (Lescun, 960 metro) jaitsiko dira. Aurreikuspenen arabera 7-8 ordu beharko dituzte ibilbidea egiteko.

KEY-LAN
Sartailgintza

Nafarroa erorb. 13 beheko - TOLOSANA
Mug. 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 83 13

Ostiraletik gizon bat falta da

Berrobi » Familiakoek azaldutakoaren arabera, Tolosako jatetxe batean ikusi zuten bazkaltzen azkeneko aldiz.



77 urte ditu desagertuak. HITZA

ERREDAKZIOA

Berrobiko gizon bat desagertu da. Familiakoek azaldu dutenaren arabera, joan den ostiral eguerdian ikusi zuten azkeneko aldiz Tolosako jatetxe batean eta ordutik ez dute bere berririk. 77 urte ditu desagertuak eta egun, Berrobin bizi da.

Familiak Ertzaintzan desagertuaren salatua badu ere, inguruko herritarrei dei egin nahi izan diete laguntza eskatzeko. Hala, norbaitek ikusi badu, Tolosako Ertzaintzaren bulegoan eman dezake dakien berri.

Ahaideen arabera, ostiral goizean autobusez jaitsi zen Berrobik Tolosara. Bertan osteratxo bat

eman ondoren, Beti Alai jatetxean bazkaldu omen zuen. Bertan ikusi zuten azkeneko berrobitarra. Hortik aurrera, 77 urtekoaren familiakoek ez dakite zer gertatu zaion, edo non egon daitekeen. Ertzaintza ikertzen ari da orain desagertuaren.

Laburrak

Bihar silo bolak egiteko plastikoak bilduko dituzte

BERASTEGI » Bihar silo bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa egingo dute Berastegin. Hori dela eta, Udalak jakitera eman duenez, gaur iluntzean eliza atari ondoko edukiontzien utzi beharko dituzte herritarrek etxean dituzten plastikoak.

Piparraren lehiaketan parte hartzeko aukera

IBARRA » Hauspoa Kultur Elkarteak antolatuta, hilaren 26ean seigarren aldiz Ibarra, azoka eta piparra azoka berezia ospatuko da. Honen baitan, Ibarako Piparraren Euskal Herriko VI. Lehiaketa Gastronomikoa jokatu da. Hala, bertan parte hartu nahi dutenek, hilaren 20a bitartean eman dezakete izena 943 67 03 99 telefono zenbakira deituta eta ibarrekult@euskalnet.net helbide elektronikora idatzita. Parte-hartzaileek bi plater prestatu beharko dituzte Ibarako piparrarekin: batetik, piperrada eta, bestetik, sei pintxo berdin.

Irudikatu mundua BERRIArekin

Gozatu berria

Egin harpidedun eta jaso **ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.**

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelkoa
- TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa
- Irudiaren berriztatze ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8, argazkiak handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.

Ezaugarriak:
samsung LE32C450

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIAren harpidedunen artean, Elektraren eskutik.

elektra
www.elektraguak.com

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, eta DVB-H irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurkoenestore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info • **aukerazazu.bizieuskaraz.berria**



23°
14°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	18°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Batzarra

■ **Tolosa.** Tolosako ehiztarien batzarra 19:30ean Kultur Etxean: postuak ondo jartzea, aterpeak berritzea, jabeekin kontratoak berritzea eta balantzea izango dituzte hizpide.

Deialdia

■ **Tolosa.** Udal Haur Eskolan matrikula irekita irailaren 30a arte Berazubiko egoitzan. Telefonoa: 680 82 65 79.

Tailerak

■ **Tolosa.** Kultur tailerretan matrikulazioa Kultur Etxean irailaren 24a arte.
■ **Berastegi.** Gaztainondo jubilatuen elkartetik hiru ikastaroren eskaintza egin dute ikasturte berrirako: yoga, eskulanak (laboreak, zahar berritzeak...) eta egurraren taila. Yoga, astelehen eta asteartetan arratsaldean emango dute. Egurraren taila, asteartean 10:00etatik 12:00etara eta eskulanak, aldiz, ostiraletan 10:00etatik 12:00etara. Ikastaroak urrian hasiko dira eta izen ematea berriz, lehen bait lehen egitea komeni dela jakinarazi dute arduradunek.


Irteera

■ **Tolosa.** Gaztainondo jubilatuen elkarrekin Eltziego inguruak ezagutzuz egun pasa antolatuta du irailaren 24erako: Valdelana bodega ezagutu eta bazkaria La Cueva jate-txean. Irailaren 19a da izena emateko azken eguna.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Naturaren misterioak

IBARRA ■ Ibarra Petra Perez seko harrituta geratu zen Ibarra Kiroldegiaren gainean duen baratzeria joan eta ahate itxura duen tomate hau

ikusi zuenean. «Kilotik gertuko tomatea hartzera joan nintzen, eta ondoren hauxe zegoen, ahate itxurarekin!», dio. Naturaren misterioak. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Anizeto Sarasola (Anoeta). Gaur 86 urte. Zorionak eta ondo pasa, etxekoan eta Migelen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>